



Osakidetza

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO
KONTSEILUAK 2018KO AZAROAREN 15EAN EGINDAKO EZOHIKO
BILERAREN AKTA**

Presidenteak deituta, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da Osasun Sailean, 2018ko azaroaren 15ean, 16:30ean. Honako hauek bertaratu dira eta hau izan da gai-zerrenda:

BILERARA DEITUTAKOAK:

LEHENDAKARIA

Jon Darpón Sierra jauna

BATZORDEKIDEAK:

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna
Fátima Ansotegi Elordi andrea
Hernando Lacalle Edeso jauna

IDAZKARIA

Ibon Etxeberria Olañeta jauna

Iñaki Berraondo Zabalegui jaunak bertaratu ezin izana justifikatu du.

GAI-ZERRENDA

LEHENENGOA.- Eusko Legebiltzarraren Osasun Batzordeak 2016-2017 LEPren harira egindako azken balorazioa

Kontseiluak zuzendari nagusiak azaroaren 15ean aurkeztu zuen eskaera jaso dela jakinarazi du. Eskaera horren bidez, bere postuan egin zuen dimisioa onartzeko eskatu zuen eta berarengan jarritako konfiantza eta aipaturiko postua betetzeko eman zaion aukera eskertu zuen.

Hori horrela, Kontseiluak, aurkezturiko dimisioa onartu du.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. atalean aurreikusitakoaren arabera eta Osakidetza Erakunde Publikoaren Estatutu Sozialen 8.5g) atalean (azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua) ezarritakoari lotuz, Administrazio Kontseiluak honako erabaki hauek hartu ditu.

ERABAKIAK:

Lehenengoa.- María Jesús Gemma Múgica Anduaga andrea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko zuzendari nagusi kargutik kentzea, izendatua izan zenetik eman dituen zerbitzuak eskertuz.


Bigarrena.- Juan Luis Diego Casals jauna Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoaren zuzendari nagusi izendatzea.

HIRUGARRENA.- Eskaerak eta galderak

Ez dago beste gairik aztertzeke, eta beraz, bilera amaitu da 2018ko azaroaren 15ean, 17:30ean.



**Sin.: Ibon ETXEBERRIA OLAÑETA
IDAZKARIA**



**Sin.: Jon DARPÓN SIERRA
PRESIDENTEA**